

JUAN SOLDADU ETA SAN PEDRO-I

Kortezubiko Matias Aranazek kontatuta 1920an

Juan soldadu San Pedrorengana jo zen, Jesukristorengandik lortu diezaion zerbait, munduan bizitzeko zeozer behar zuelako. Hiru gauza eskatzeko agindu zion.

Lehenengoz tabakoaren hostoa eskatu zion; bigarrenez, munduan ibiltzeko askatasuna eta, hirugarrenez, berak zuen zakura gura zuen guztia sartzeko eskubidea.

Bazebilen munduan berriz ere, batetik bestera. Bazekien infernuko deabruak kalte asko egiten ziola munduko jendeari.

Baten aurkitu zuen deabrua iko baten gainean ikoak jaten.

Sartzeko bere zakuan agindu zion. Sartu zen, eta Juan soldaduak ikuen eskegita jarri zuen. Hura harrika egiteko agindu zion eskolako mutilei. Mutilek harrika mankatu zuten deabrua. Deabrua alarauka zegoen, eta Juan soldaduk lepoan hartu eta eraman zuen handik aurrera.

Beste mutil txiki pilo bat aurkitu zituen. Ipinu zuen deabrua tantai baten eskegita, eta mutilei agindu zion hurari harrika egiteko. Deabrua alarauka zegoen ez zuela behar txarrik egingo gehiago. Juan soldaduk atera zuen zakutik eta bere lekura joateko agindu zion eta gehiago ez etortzeko jendeari kalterik egiten.

Geroago, Juan soldadu munduan zebilen, eta bere lagunek alde egin ziotenez, gogaitu egin zuen.

Joan zen zerura San Pedrorengana. Honek esan zion ez zuela lekurik, lehen ez zuelako eskatu. Joan zen infernura. Jo zituen atea.

- Nor da? –itaundu zioten.

- Juan soldadu –erantzun zuen.

- Tranka, tranka atea –esaten zuen deabruak- Juan soldadu sar ez dadin.

- Juan berriro joan zen zeruko atera. Jo zuen.

- Nor da?

- Juan soldadu . Nor nahi du tabakoa?

- Ni, ni.

- Atea zabaldu zuen San Pedrok tabakoa hartzeko.

Juan soldadu atearen albora bota zuen tabakoa, eta San Pedro tabakoa hartzen zegoen bitartean, Juan Soldadu sartu zitzaion barrura.

Orain Juan Soldadu barruan dago.

Joxe Miel Barandiaran
Obras Completas Tomo II
Eusko-Folklore
Editorial La Gran Enciclopedia Vasca
Bilbao, 1973